ONDARROAKO UDALA
Bizkaia

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

Udal liburutegirako funts bibliografikoa

Espedientearen zenbakia: 2024/00417 ***SAILA :*** *Kultura. Liburutegia*
Kontratu-mota: Hornidura
Kontratuaren xedea: Ondarroako Udal Liburutegiko funts bibliografikoa handitzeko edota berritzeko hornidura kontratua
Kontratatzeko prozedura: Ireki super sinplifikatua

1. KONTRATUAREN XEDEA

HELBURUA: Kontratuaren helburua da liburuak eskuratzea Ondarroako Udal Liburutegiko bildumarako

Lote bakarra egingo da:

1. LOTEA	*Liburutegirako liburuak CPV 22113000-5*

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia dela kontuan izanik, hori hartuko da aintzat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero.

2. HORNIDURAREN JUSTIFIKAZIOA

Liburutegiak irakur-zaletasuna sustatzeko ekintza planarekin bat etorriz, kultura arloko sorkuntza lanari bidez zabaltzea lehentasunezko egitekoa da, irakurzaletasuna sustatzeko.

Horregatik, liburuen bitartez, Ondarroako herritarrei aukera eman nahi zaie liburuak ezagutzera ematea eta literaturaz gozatzea.

Liburutegiek funts-bibliografiko eta ikus-entzunezko material koherentea, orekatua eta egokia izan behar duen heinean, herritarren beharrizanen arabera, derrigorrezkoa da liburuak berritzen edota erosten joatea. Gehienetan, nobedadeak eskatuko dira, nahiz eta tarteka lehendik argitaratuta zegoenak ere eskatu.

Liburu erosketen eta ikus-entzunezko materialen bidez, helburu hauek nahi dira lortu:

Literaturako egileak ezagutzea eta literaturaz gozatzea

Irakurzaletasuna sustatzea.

Herritarrak liburutegira hurbiltzea: kultura sustatzaile toki eta erakunde aktiboa dela herritarrengan jakinarazi.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-06-04 14:24:44(UTC) Fecha: 04/06/2024 14:24:44 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA YOLANDA URROSOLO OLABARRIA Data: 2024-06-04 14:25:24(UTC) Fecha: 04/06/2024 14:25:24 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {f740c9c3-91bc-41e2-a5fd-9c07df117018} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Irakurtzeko ohitura sustatu eta irakurleak sortu.

Literaturarenganako harreman afektiboa eraikitzea.

3. HORNIDURAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

Kontratu honek hurrengoko hornidurak barneratzen ditu, aldi-aldian Ondarroako Udaleko zerbitzuen eskaerei jarraituz.

1. *LOTEA: Nagusientzako eta umeentzako liburuak*

Dokumentuek eduki kultural, artistiko, didaktiko edo zientifikoa izango dute, liburutegi publikoen eta haren erabiltzaileen helburuak eta eskakizunak kontuan hartuz, bai helduek zein haurrentzako eta gazteak, era guztietako lanak barne, gaiak eta mailak.Aldi berean, lehenetsiko dira emakume sortzaileen materialak baita gazteentzako hezkidetzan oinarritutakoak.

1.- LOTEA: NAGUSIENTZAKO ETA UMEENTZAKO LIBURUAK

ESKAERAK

Ondarroako Udal liburutegiak finkatuko ditu eskaeren prozedurak baina betiere hornitzaileak idatziz jasoko du eskaeraren data eta ordua.

Eskaeretan zenbakia jarriz, eskatutako materialaren identifikazio datuak ere ezarriko dira, hala nola, egilea, izenburua, argitaletxea eta ISBNa.

Eskatutako liburuak edozein argitaletxekoak eta liburu banatzailekoak izan daitezke.

BIDALKETA-GASTUAK

Hornitzaileak bere gain hartuko ditu garraio-gastuak eta liburutegian utziko ditu egindako eskaerak, zehazki:

TXOMIN AGIRRE UDAL LIBURUTEA

Iñaki Deuna 35, beh.

48700 ONDARROA

BIDALKETAK EPEAK

Bidalketak liburutegiko premiaren menpe egongo dira eta bata bestearen ondoren egingo dira.

Entregatzeko epeak honako hauek izango dira eta beti ere eskaera egiten den egunetik aurrera kontatuta.

Eskaera orokorrak: 10 egun

Premiazkoak, prezaskoen epea 5 egunetakoa izango da.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-06-04 14:24:44(UTC) Fecha: 04/06/2024 14:24:44 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA YOLANDA URROSOLO OLABARRIA Data: 2024-06-04 14:25:24(UTC) Fecha: 04/06/2024 14:25:24 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {f740c9c3-91bc-41e2-a5fd-9c07df117018} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

HORNIKETA

Hornitzaileak ezin badu materialaren bat lortu lehenbailehen jakinaraziko du eta bidalketa albaranarekin bidaliko da. Albaranean titulua eta prezioa zehaztuko da eta baita bidalketaren zenbateko guztia.

MATERIALEN BERMEAK

Eskatutako materialaren artean akatsen bat balego hornitzaileak berriz hartu edo eta ale berriak bidaliko ditu. Kasu honetan zazpi eguneko epea du okerretako materiala hartu eta berria bidaltzeko. Epea gainditua liburutegiak bidaliko dio hornitzaileari baina honen bere gain hartuko ditu garraio-gastuak.

Lizitazioan parte hartu gura duen enpresak hornikuntza hau emateko bideratuko duen pertsona edo pertsonak hartu-emonak euskaraz izango direla bermatu beharko du.

Esleipedunak Udal Liburutegiaren ardurapean eta beraien gomendioak gogoan hartuta lan egingo du. Horretarako, behar den guztietan, Liburuzainak proposatzen dizkion koordinatzeko eta lanen jarraipenerako baliabideak erabiliko ditu, bai bilera bidez, baita beste bide batzuetako komunikazio bidez.

Sinatzaile / Firmante: ONDARROAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ONDARROA Data: 2024-06-04 14:24:44(UTC) Fecha: 04/06/2024 14:24:44 (UTC)
Sinatzaile / Firmante: MARIA YOLANDA URROSOLO OLABARRIA Data: 2024-06-04 14:25:24(UTC) Fecha: 04/06/2024 14:25:24 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {f740c9c3-91bc-41e2-a5fd-9c07df117018} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.